

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**166/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Arabako Foru Aldundiko langileen, behin-behineko langileen eta kargu publikodunen ordainsarien ehuneko 1,5eko igoerari**

Hauek arautzen dute ordainsariei dagokien funtzio publikoan indarrean dagoen araubide juridikoa: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeak, haiek garatzen dituzten hainbat arauk eta, bereziki, Euskal Administrazio Publikoetako Funtzionarioen Ordainsarien uztailaren 30eko 207/1990 Dekretuak.

Arau horiekin bat etorritik, oinarrizko ordainsarien zenbatekoa (soldata, hirurtekoak eta aparteko ordainsariak) Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak zehazten du; destino-osagarriaren zenbatekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuen Legeak, eta berariazko osagarria eta ordainsari osagarriak Euskadiko administrazio publikoek.

Abenduaren 2ko 14/2025 Errege Lege Dekretuaren 1. artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren 2026ko urtarrilaren 20ko Erabakian xedatutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak, otsailaren 10eko 53/2026 Erabakiaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren, haren behin-behineko langileen eta foru kargu publikoen zerbitzura dauden langileen ordainsariak ehuneko 2,5 igotzea onetsi zuen, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako atzeraeraginekin, 2024ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak erreferentziatzen hartuta.

Sektore publikoaren zerbitzuko langileen 2026rako ordainsariei dagokien, Sektore publikoaren eremuko ordainsarien arloan presako neurriak onesten dituen abenduaren 2ko 14/2025 Errege Lege Dekretuak honako hau ezartzen du 2. artikuluan:

“1. 2026. urtean, sektore publikoko langileen ordainsariak gehienez ere ehuneko 1,5eko igoera globala izan ahalko dute 2025eko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta. Azken horietan, errege lege dekretua honetan onetsitako ordainsari igoera barne hartuta dago. Ordainsari igoera hori homogeneotasunaren arabera hartuko da kontuan alderatutako bi aldietarako, bai langileei dagokien, bai langileen antzinatearen dagokien, eta 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.

2. Era berean, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, hala badagokio, ehuneko 0,5eko ordainsari igoera gehigarri eta kontsolidagarria aplikatuko da 2025eko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarietarako, errege lege dekretua honetan onetsitako ordainsari igoera barne hartuta, 2026ko KPIaren aldaketa, 2027ko lehenengo hiruhilekoan ordainduko dena, ehuneko 1,5 edo hori baino handiagoa bada.

Ondorio horietarako, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) 2026ko KPIaren datuak argitaratu ondoren, igoera hori aplikatzea onetsiko da, Ministro Kontseiluaren erabaki baten bidez. Erabaki hori BOEn argitaratuko da”

Bestalde, 2026ko otsailaren 17an, Eusko Jaurlaritzak Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 122.2.a) 1 artikuluan jasotako destino-osagarriaren zenbatekoa ere eguneratu zuen, eta ehuneko 1,5 handitu, 2025ko abenduaren 31n indarrean zegoenarekin alderatuta, eta 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorio ekonomikoekin.

Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu aurreikuspenei dagokienez, Arabako Lurralde Historikoaren 2026rako Aurrekontua Gauzatzeari buruzko abenduaren 16ko 20/2025 Foru Arauaren 16.1 artikulua ezartzen duenez, Arabako Foru Aldundiko eta foru erakunde autonomoetako funtzionarioen eta lan kontratadun langileen 2026ko ordainsari osoak, 2025eko abenduaren 31n indarrean egon direnekin alderatuta, foru arau horretan ezarritakoaren arabera handituko dira, erkatu diren bi aldietarako homogeneotasunari eutsita, bai langileei dagokienez, bai antzinateen dagokionez. Nolanahi ere, ordainsariak ezin izango dituzte gaituzte Estatuko oinarriko legerian ezarritako mugak.

Halaber, foru arau horren 16.3 artikulua dio Foru kargu publikoak dituzten pertsonen doazien ordainsariak handitu egingo direla 2026an, hala badagokio, foru enplegatu publikoentzat ezartzen den ehunekoaren antzera. Nolanahi ere, ordainsari horiei Foru Kargu Publikoetan Aritzea arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak xedatzen duena aplikatuko zaie.

Era berean, 16.4 artikulua xedatzen du ezen behin-behineko langileen ordainsariak kasu bakoitzean berdintzat jotzen diren funtzionario lanpostuen berberak izango direla edota, hala badagokio, lanpostuen sailkapen orokorraren arabera finkatuko direla.

Azkenik, foru arau horren bigarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, ordainsari goera aurreikusten da 2026ko ekitaldirako. Igoera Arabako Foru Aldundiko Foru Gobernu Kontseiluak eta baimena ematen zaien foru sektore publikoko gainerako organo eskudunek zehaztuko dute; nolahi ere, gehienez ere, Estatuko oinarriko legerian ezartzen den muga orokorraren bestekoa izango da.

Horregatik, lehenengo diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau hartu dute

#### ERABAKIA

Lehenengoa. Onespina ematea, 2026ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, Arabako Foru Aldundiko langileen, behin-behineko langileen eta kargu publikodunen ordainsarietako ehuneko 1,5eko goera aplikatzeari, 2025eko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak oinarri hartuta.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen erakunde berean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan ezarritakoarekin lotuta.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 24a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,  
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*

**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**

*Funtzio Publikoko zuzendaria*

**KOLDO MIKEL RUILOPE GONZÁLEZ**